

ALTXOR BAT AURKITUKO DUGU

Testua eta marrazkiak: JANOSCH

Itzulpena: AINHOA IRAZUSTABARRENA BARRIOLA

Azal gogorrez koadernatua. 15 x 21,5 cm. 52 orrialde. 15 €.

Altxor bat aurkituko dugu (euskaraz)
ISBN 978-84-7681-765-0. Kalandraka-Pamiela.

Vamos a buscar un tesoro (gaztelaniaz)
ISBN 978-84-92608-62-1. Libros para soñar.

Imos buscar un tesouro (galegoz)
ISBN 978-84-8464-720-1. Tras os montes.

Anem a buscar un tresor (katalanera)
ISBN 978-84-8464-819-2. Kalandraka.

Vamos encontrar aum tesouro (portugesez)
ISBN 978-989-749-000-2. Livros para sonhar.

Eta tigre txikiak lasterketetako auto-gidarien txano bat ere nahi zuen eta lanpara gorri bat, ohe gainean jartzeko, bai eta larruzko bota batzuk ere.

– Eta udako jantzi dotoreak eginaraziko genituzke –esan zuen hartz txikiak– eta ehiztarien dantzaldira joango ginateke dantza egitera. Tango airo bat parketaren gainean...

O, bai, Tigre, zoragarria litzateke...!

–Goazen –esan zuen tigre txikiak–, altxor bat aurkituko dugu!

“Askotan, gauzak ez dira izaten uste bezala, justu alderantziz baizik”, esan zien hontz zaharrak hartz txikiari eta tigre txikiari “Lurreko zorionik handiena” lortzen saiatu zirenean. Lurrean zuloak egiteaz eta ur azpian ere bilatzeaz aspertu ziren, han algak, arrainak eta zaborra besterik aurkitu ez bazuten ere.

Eta, azkenean, lortu zutenean beren gutizia guztiak asetzeko dirua, ezer gabe geratu ziren berriz ere. Iruzurtuak eta lapurtuak izan ondoren, etxera itzuli ziren, baina ordura arte abentura asko izan zituzten, elkarrekin liskarrean aritu ziren eta, hontz zaharraz gainera, sator zoriontsua, ibaiko arraina, galtza urdineko lehoia, oilo zoroa eta asto bidaiaria ere ezagutu zituzten.

“Altxor bat aurkituko dugu” ipuinak, “Zein polita den Panama!” eta “Posta tigrearentzat” ipuinekin batera, animalia gizatiartuak protagonista dituzten istorio sorta bat osatzen du, zeinetan Janoschek –lehen etapa batean nolabaiteko oinarri politikoa zuten liburuak idatzi zituen– adiskidetasunaren balioa goraiatzeko duen. Oraingoan, hartzak eta tigreak ikasiko dute bizitzako egiazko altxorak ez daudela beti diruan, ez eta gauza materialetan ere.

Haur-estiloko ilustrazio alai eta koloretsu, klasiko eta lauen bidez, Janoschen kontakizun honi umorea dario eta baikortasun eta xalotasun arrasto bat uzten du irakurlearengan pertsonaien espektatibak asebeteko dituen ezusteko amaierara iritsitakoan.



■ **Gaia:** egiazko aberastasunari buruzko istorioa.

■ **Adin gomendatua:** 7 urtetik aurrera.

■ **Alderdi aipagarriak:** haur literaturako klasikoa; “Zein polita den Panama!” eta “Posta tigrearentzat” ipuinen egile eta ilustratzailearena (Kalandraka-Pamiela); animalia gizatiartuak; materialismoa, adiskidetasuna, gauza xumeen balioa.

Janosch

(Hindengurb, Alemania, 1931 -egun Zabrze, Polonia-)

Janosch de Horst Ecker-en ezizena da. Izen artistiko hori hartu zuen bere lehen editoreak bultzaturik. Haurtzaro zail baten ondotik, gazterik hasi zen lanean, errementari eta sarraillari gisa. II. Mundu Gerraren ostean, bere familia Mendebaldeko Alemaniara joan zen, eta oihal-lantegi batean hasi zen lanean. 1953an Munichera joan zen, eta aldi batez Arte Ederretako Eskolan ikasi zuen. Gero artista independente gisa hasi zen lanean, eta 1960an bere ibilbide artistiko eta literarioari hasiera eman zion liburu argitaratu zuen. 300 lanetik gora ditu, 70 hizkuntzara itzuliak, eta sari ugari jaso ditu. Nazioarteko ospea 1979an argitaratutako Zein polita den Panama! ipuinak eman zion. 1980az geroztik Tenerifen bizi da, eta haurrentzako liburuak, narratiba, antzezlanak eta animazio-lanak idatzi eta irudiztatzen ditu. Osagai autobiografikoak dituen eleberriren bat ere idatzi du helduentzat, eta idazle esanguratsuen testuak ere irudiztatu ditu, hala nola Charles Bukowskirenak. <http://www.janosch.de>

